

Elkarbidean programa 2022



Elkarbidean Programa

elkartuk (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea), Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentua laguntzaile duela, bidai txanda ezberdinak antolatzen ditu, programa honengatik izango ez balitz **BERDINTASUN BALDINTZETAN BIDAIATU EZINGO LUKETEN** desgaitasun fisiko, organiko edo sensoriala duten pertsonen aisialdirako eskubidea bermatzeko.

Izena nortzuk eman dezakete?

16 urte edo gehiago eta desgaitasun fisiko, organiko edo sensoriala dutenek. Eskatzaileek oporrak behar bezala gozatzeko, ezin dute gaixotasun larririk edo osasun zerbitzu berezien beharrik izan. Ezta bere buruko arazoengatik, taldeko eta inguruko elkar bizitze giroa aldatu dezaketenek ere.

Desgaitasun handiagoa jasaten duten eta mugikortasun arazo larriagoak edota behar bereziko egoerak -adibidez, diru sarrera eskasak, bere baliabideekin oporretara joateko ezintasuna, e.a.-dituztenek lehentasuna edukiko dute.

Eguneroko bizitzako oinarriko jardueretako beste pertsona baten laguntza behar duten eskatzaileek, laguntza hori emateko gai den beste pertsona baten izena eman beharko dute. Beharrezko laguntzaile honek, bidaia eskaintzen den prezio taularen arabera ordaindu beharko du. Beharrezkoa ez den laguntzailearen bat eramanez gero, honek bidaiaren kostu osoa ordainduko du.

Ondorengoa barne

- Benidorm, Salou, eta Andaluciako joan-etorriak, egokitutako autobusean egingo dira, bazkaria barne.
- Ibilaldiak (Sevilla, Córdoba, Jerez eta Cádiz) egokitutako autobusean eta bertako gidarekin Andaluciako txandan.
- Hoteletako egonaldia "gela bikoitzean". Gela bakarra nahi duenak dagokion gehigarria ordaindu beharko du. Egonaldia "PENTSIO OSOAN" Benidorm eta Salouko txandetan. Andaluciako bidaia pentsio erdian (gosaria eta afarria) izango da, Córdoba, Cádiz eta Burgoseko probintziako bazkariak barne.
- Bidai aseguruak.

Gela bakarraren prezioa edo edozein argibide nahi izanez gero, **elkartura** jo dezakezu.

Programa Covid-19tik eratorritako pandemiaren ondorioz hartu beharreko neurrien menpe egongo da.

Eskabideak, izena emateko orrietan eskatzen diren datu guztiak, ahal izanez gero **apirilaren 29a baino lehen** aurkeztu beharko dira helbide honetara:

elkartu
(Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa
duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea)

Ondarreta pasealekua, 5 behea
20018 Donostia / San Sebastián
tel.: 943 31 67 70
elkartu@elkartu.org

Izen-ematea **elkarturen** web orriaren bidez egin ahal izango da ere

www.elkartu.org

↓ ↓ Taldeak ↓ ↓		
1	BENIDORM Alicante	Ekainak 4tik 18ra BRISTOL HOTELA
2	SALOU Tarragona	Uztailak 2tik 16ra SALAUROS HOTELA
3	SALOU Tarragona	Abuztuak 20tik Irailak 3ra SALAUROS HOTELA
4	ANDALUCÍA Bidai Kulturala	Irailak 24tik Urriak 1era ILUNION HOTELA
5	BENIDORM Alicante	Urriak 15etik 29ra BRISTOL HOTELA

Irisgarritasun baldintzak: Txanda desberdinetako hotelak irisgarriak dira (ez egokituak). Ezin da bermatu egokitutako gelak esleitzea.

OHARRA: Prezioak, diru-sarreraren arabera, alboko orrialdean dituzunak dira, bai eskatzaileentzat eta beharrezko laguntzaileentzat ere.